



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2001eko urriaren 8an

99 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru lege proiektua, Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko zenbait arau aldatzen dituen. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea aldatzekoa, Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua (4. or.).

—Foru Lege proposamena, ezgaituak lan merkatuan sartzeari buruzkoa, Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua (6. or.).

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1994 Foru Legearen 5.1 artikulua aldatzekoa, Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeak aurkeztua (8. or.).

—Foru Lege proposamena, hondakin berezien kudeaketari buruzko irailaren 20ko 13/1994 Foru Legea aldatzekoa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua (9. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Jabeldura, etorkinentzako hezkuntza politikari buruzkoa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina (11. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da abelbideen sarea suspertzeko plan bati ekin diezaion, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak aurkeztua (12. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Unibertsitatei buruzko Lege proiektua erretiratzeko, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua (13. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jarduketa plan bat egin dezan ikastetxe publikoetako instalazioak irekita egoteko denbora luzatzeko, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua (14. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere gain har dezan osasun laguntza izateko eskubidea ezagutzeko eskumena, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua (15. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erditze multipleak izan dituzten familientzako laguntza ekonomikoak alda ditzan, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua (16. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, MER hondakinak Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa batetara eramateari buruzkoa, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak egina (18. or.).
- Galdera, ondare historikoaren inbentarioan ageri diren etxebizitzak zaharberritzeari buruzkoa, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak egina (19. or.).
- Galdera, mahats bilketan aritzen diren langileen lojamenduari buruzkoa, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak egina (19. or.).
- Galdera, aurten gertatutako suteei buruzkoa, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak egina (20. or.).
- Galdera, Bardeako tiro poligonoan militarren ariketak direla-eta dauden bermeei buruzkoa, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak egina (21. or.).
- Galdera, jarduera arriskutsuan aritzen diren enpresei buruzkoa, Batasuna Parlamentuko Taldeak egina (21. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak Iruñeko Erakustazokan izaniko parte hartzeari buruzkoa, foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak egina (22. or.).
- Galdera, komunikabideen kudeaketako enpresa bat Nafarroan kokatzeari buruzkoa, foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak egina (23. or.).

G SAILA:**Txostenak, Deialdiak eta Parlamentuko Informazioa:**

- Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko dokumentalista eta liburutegiko laguntzaile lanpostu bat lekualdatze-lehiaketaren bitartez betetzeko. Lekualdatze lehiaketa eman gabe geratu da (24. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru lege proiektua, Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko zenbait arau aldatzen dituen

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urriaren 1ean egindako bilkuran, ondoko Erabakia hartu zuen, besteak beste:

Lehena.- Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko zenbait arau aldatzen dituen Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2001eko urriaren 11ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu Foru Lege proiektua 2001eko irailaren 24ko 93. Nafa-

rrako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Bigarrena.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.”

Iruñean, 2001eko urriaren 3an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea aldatzekoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urriaren 1ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobezeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145, 149 eta 150. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Bigarrena.- Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145.2 artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2001eko urriaren 3an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea aldatzekoa

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legearen bigarren xedapen gehigarriak ezartzen duenez, sozietate publikoek erregistroa kudeatzen duen organoari jakinaraziko diote zein lagun hautatu eta izendatzen dituzten haien zuzendaritza organoetarako, foru lege horretako 2. artikulua ukitzen baditu, baita jakinarazi ere 5.1 artikuluan adierazitako kontzeptuengatik esleitako sari ekonomikoak.

Gauza bera dio urtarrilaren 7ko 2/1997 Foru Dekretuaren lehen xedapen gehigarriak, eta hau gehitzen du: "hautapen eta izendapenen komunikazio hori egiteko hilabete izanen da, behin Foru Dekretu hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta gero, hautapen eta izendapen horietan aldaketarik izanez gero horren berri eman behar dela alde batera utzi gabe."

2001eko ekainean emaniko erantzun parlamentarioan adierazi zenez, 1997ko lehenengo hilabeteetan, hori guztia abian jartzen ari zela, sozietate publikoekin harremana izan zen horiei onetsi berria zen arauen edukia jakinarazteko, eta sozietate publikoak zuzentzen dituzten edo horien zuzendaritza organoetan dauden goi karguei buruzko datuak eskuratzeko.

Hasierako harreman horiez gain, sozietate publikoek ez diote erregistroari xedapen gehigarrietan aipatutako jakinarazpenak egin; hala berre-

tsi zen erregistroaren arduradunak emaniko erantzunean.

Erregistroak, informazio falta hori izanda ere, goi karguen bateraezintasunen kontrolari buruz 19/1996 Foru Legeak ezartzen dizkion eginkizunak betetzen jarraitu beharko du. Izan ere, harreman estua du Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Ondare Zerbitzuarekin (Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak partaidetza duen sozietate publikoen kontrol eta jarraipena dago zerbitzuaren eginkizunen artean), horrek ematen baitio, aldizka, gai horiei buruzko informazio zehatza.

Informazio iturri berezi hori izanda ere, erregistroa kudeatzen duen organoak asmoen artean behar du, betiere, aipatutako xedapenek ezarritako jakinarazpen beharra betearaztea sozietate publikoei.

Horri dagokionez, esan beharra dago aipatutako legean ezarritako zehapen araubideak, goi karguen arau-hausteak ezartzean, ez duela zehapen berezirik ezartzen sozietate publikoek informazioa ematen ez duten kasuetarako.

Horregatik guztiagatik, 14. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzea proposatzen dugu, zehapen larri-

tzat jo dadin ondare-deklarazioak ez egitea kasuko erregistroan, eta, halaber, argi eta zorrotz jaso dadin zuzendari nagusiek eta sozietate publikoetako zuzendari kudeatzaileek, besteak beste, jarduerak eta/edo ondare-ondasunak deklaratzeko betebeharra dutela.

Xedapen orokorrak

Artikulu bakarra. 14. artikuluko 3. idatz-zatia kendu egingen da eta 14. artikuluko 2. idatz-zatian e) letra gehituko; hona testua:

e) Jarduerak edo/eta ondareko ondasunak ez aitortzea Erregistroan, ezarritako epeen barrinean, datuak zuzentzeko eskatu eta aitortzen direnean.

Azken xedapenak

Lehena. Nafarroako Gobernuari esku ematen zaio foru lege hau garatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko.

Bigarrena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, ezgaituak lan merkatuan sartzeari buruzkoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urriaren 1ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artiku-luak aitortzen dion legegintzarako ekimena erabi-liz, Nafarroako Demokratien Elkargunea Parlamentuko Taldeak ezgaituak lan merkatuan sartzeari buruzko Foru Lege proposamena aur-keztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Ezgaituak lan merkatuan sartzeari buruzko Foru Lege proposamena Nafarroako Par-lamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agin-tzea.

Bigarrena.- Foru Lege proposamen hori Nafa-rroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2001eko urriaren 3an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, Ezgaituak lan merkatuan sartzeari buruzkoa

ZIOEN AZALPENEA

Minusbaliatuak 31.003 pertsona dira guztira; hau da, Nafarroako populazioaren ehuneko 6. Horietatik, ehuneko 44 Iruñerrian daude.

Minusbaliotasun-motei dagokienez, ehunekorik handiena egiten dutenak hezur eta giltzaduretako arazoek eta eritasun kronikoek eragindakoak dira, guztizkoaren ehuneko 53 hartzen baitute.

Legezko minusbaliotasun-mailaren ikuspegitik, ehuneko 60k ehuneko 33 eta 65 bitartekoa du, eta ehuneko 22k ehuneko 75 baino gehiagoko minus-baliotasuna dauka.

Gutzizkoaren ehuneko 42k 66 urte baino gehiago dauka, eta ehuneko 16k beste pertsona baten laguntza beharrezkoa du.

Bestalde, jende-multzo honek, lanaren ikuspe-gitik, Nafarroako batez bestekoa baino hiru bat aldiz handiagoa den langabezia-tasa pairatzen du.

Jabetu behar dugu instituzioek ahaleginak egi-ten dituztela pertsona eta talde kaltetuenei lagun-tza emateko, baina oso gertu ditugu, baita ere, bestelako gabezia garrantzitsu batzuk, eta gure ustez erabakigarria da, beharrezko funtsak jartze-az gain, programa eta proiektu garrantzizko eta ongi kudeatuei esleitzea funts horiek.

Horrela, asko kezkatu gaitu Kontuen Ganbarak "Ezgaituak (1995etik 1999ra)" aurrekontu-progra-mari buruz eginiko fiskalizazio txostenak; izan ere, gai garrantzitsuetan kontrol eta ikuskatze gabe-ziak daudela erakusten du.

Kontuen Ganbararen txostenak azterturiko puntuetako bat laneratzea lortzeko legegintza-neurrien egiazko eragina izan da. Neurri horietako batzuk dira administrazioak deituriko postuen % 3 gordetzea, eta plantillan ezgaituak dauzkaten enpresei kontratu publikoetan lehentasuna emat-ea.

Txostenak agerian uzten duen bezala, begi-bistakoa da administrazioek ez dituztela, kontrata-zio-arloan, euren jarduketak legeek ezarritakora egokitzen.

Kontuen Ganbarak informazioa eskatu zien Gobernu departamentuei eta Nafarroako udal nagusiei, euren iritzia eman zezaten ehuneko 33 edo gehiagoko ezgaitasuna duten langileek lan-postu hutsen % 3 bete ahal izan dezaten postu-kopuru horren erreserbaren aplikazio praktikoari buruz. Era berean, administrazio-klausula partiku-larren orriek plantillan langile minusbaliatuen kopuru jakin bat daukaten enpresei kontratuak esleitzeko lehentasuna emateari buruz informa-zioa eskatu zen.

Emaitza honako hau da:

Zentroa	Deitutako	Betetako	Minusba-liatuak
Administrazioa, erroa	642	609	7
Osasunbidea	411	406	6
Hezkuntza	68	68	–
Guztira	1.121	1.083	13

Beraz, deialdiko guztizko lanpostu-kopurutik, ehuneko 1,16 baizik ez da bete minusbaliatuekin. Ehuneko hori ehuneko 1,2ra igotzen da erreferen-tziat hartzen bada betetako postu-kopurua.

Egoera horrez gain, aipa liteke Nafarroako Gobernuaren mendeko enpresa publikoetan neu-

rri horrek izan duen emaitza. Enpresa publiko horietan, 500 langiletatik, 5 pertsona minusbaliatu daude guztira, kontuan izan gabe ITG Ganadero, Agrícola, NASERSA, Viveros y Repoblaciones eta beste enpresa batzuk.

Ezgaituen gizarteratzea lortzeko oinarrizko bideetako bat haien laneratzea da. Gainera, minusbaliotasun edo ezgaitasunen bat daukaten pertsonak gizaratean aktiboki parte hartu ahal izateko bide naturala da.

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Nafarroako administrazio publiko-en zerbitzuko langileriaren estatutuaren testu birbildua onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Foru Dekretu Legegileko 7. xedapen gehigarria aldatu eta honela geldituko da:

“Nafarroako administrazio publikoetako lan eskaintza publikoetan, gutxienez lanpostu betegabeen 100eko 4 ezgaituentzako gordeko da, baldin eta horien ezintasun maila 100eko 33koa edo handiagokoa izan, hauta-probak gainditu eta, hala eskatzen zaienean, aipatutako ezintasun maila eta eginkizunak burutzeko gai direla egiaztatzen badute.”

2. artikulua. Nafarroako Administrazio Publikoen kontratuei buruzko ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legeko 62.8 artikulua aldatu eta honela geldituko da:

“8. Administrazio klausula partikularren plegu guztiek, zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuetan, esleipen irizpideen artean, ezintasunak dituzten pertsonak lanean integraztearena jasoko dute, kaudimen teknika frogatzeko unean plantillaren % 4 baino gehiago ezintasun fisiko handia, gorreri sakon eta larriak, ezintasun psikikoa edo adimen eritasuna duten langileek osatua duten enpresak balioesteko eta horiei puntuazio ona emateko.”

3. artikulua. Nafarroako Administrazio Publikoen kontratuei buruzko ekainaren 16ko 10/1998

Foru Legeko 9. eta 14. xedapen gehigarriak aldatu eta honela geldituko dira:

“9.-Kontratazioa plantillan minusbaliatuak dituzten enpresekin.

Kontratazio-organoek administrazio klausula partikularren pleguetan lehentasuna ipiniko dute kontratuak esleitzerakoan proposamen jakin batzuetarako; alegia, beren kaudimen teknika frogatzeko unean plantillan 100eko 3 baino txikiagoa ez den langile minusbaliatuen kopurua duten enpresa publikoek edo pribatuek aurkezten dituztenendako. Beti ere proposamen horiek, esleipenaren oinarri diren irizpide objektiboen ikuspuntutik onenak direnekin parekatzen ahal direnean.”

“14.- Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuen esleipenari dagokionean, esleipendun enpresek 25 langile baino gehiago badute, enpresetako plantillako langileen % 4k, gutxienez, akats fisiko larria, gortasun larri eta sakoan akats psikikoa edo adimen gaisotasun larria beharko du izan.”

4. artikulua. Foru Komunitateko administrazioak eta haren mendeko erakundeek enpresa bateko kapitalean gehiengo partaidetza badute –zuzena ala zeharkakoa–, enpresa publiko horiek, lanpostuen deialdietan, nahitaez gorde beharko dute plantillako lanpostuen % 4 ezgaitasuna duten personentzat.

Azken xedapenak

Lehena. Nafarroako Gobernuari eta gai horretan eskumena duten kontseilariei esku ematen zaie foru lege hau garatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko.

Bigarrena. Indarrik gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

Hirugarrena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1994 Foru Legearen 5.1 artikulua aldatzekoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urriaren 1ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobezeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeak Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1994 Foru Legearen 5.1 artikulua aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145, 149 eta 150. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1994 Foru Legearen 5.1 artikulua aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Bigarrena.- Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145.2 artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2001eko urriaren 3an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1994 Foru Legearen 5.1 artikulua aldatzekoa

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko Foru Legeko zioen azalpenean jasotzen denez, sektore publikoaren funtzionamendu zorrotz eta objektiboa bermatu beharra dago.

Praktikan, lege horren aplikazioak erakutsi du goi kargu eta Gobernuko kide gehienak ordainsariak jasotzen ari direla administrazio kontseilueta- ra joateagatik; horrek ez dirudi bateragarria denik independentzia instituzionalari eustearekin; are gehiago, kontuan izanda sozietate horietako batzuk ez dutela foru instituzioen gehiengo partaidetza.

Gure ustez, Nafarroako Gobernuko kideek eta Nafarroako Foru Komunitateko administrazioiko goi karguek ordainsari bakarra jaso behar dute, karguari dagozkion eginkizun guztien ordain izanen dena; kargua dela-eta administrazio kontseilu bateko partaide izan eta hara joateagatik sariak jasotzea ekidin egin behar da. Dirusarrera horiek zuzenean pasa beharko lukete diru publikoen kutxara. Horrela, kudeaketa publikoaren ondoriozko dirusarrerak eta gastuak gardenagoak izatea lortuko da.

Horregatik, 5.1.b) artikulua kentzea proposatzen dugu, eta, beraz, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legeko 5. artikulua honela geldituko da:

5. artikulua. Sari ekonomiko bateragarriak kargu publiko gisa.

1. Kargu publiko gisa goi karguan aritzearekin bateragarri diren jarduerak galarazi gabe, ez du karguaren lansariak aparte beste sari ekonomikorik jasoko, honako hauek salbu:

a) Egin behar dituen bidaia, egonaldi eta lekualdatzeen gastuen kalteordaina, indarra duen araudiari jarraituz.

b) Zein administrazio publikotatik datorren haren legeriak onartzen dizkion ordainsari bateragarriak, goi karguak eszedentzia berezian edo zerbitzu berezietan diren funtzionarioak direnean.

2. Edozein kontzepturen bidez jaso behar ez diren zenbatekoak sortuz gero, aurreko zenbakian adierazitakoari jarraituz, dagokien kontuan sartuko ditu zuzenean ordaintzen dituen erakundeak, eta hori ezinezkoa bada, hartzaileak berak, jaso eta hamabost eguneko epean.

Foru Lege proposamena, hondakin berezien kudeaketari buruzko irailaren 20ko 13/1994 Foru Legea aldatzekoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urriaren 1ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobeztzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak hondakin berezien kudeaketari buruzko irailaren 20ko 13/1994 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du eta premiazko prozeduraz bidera dadin eskatu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 108 eta 145. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lenena.- Hondakin berezien kudeaketari buruzko irailaren 20ko 13/1994 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Bigarrena.- Aipatu Foru Lege proposamena premiazko prozeduraz bideratzea.

Bigarrena.- Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2001eko urriaren 3an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, hondakin berezien kudeaketari buruzko irailaren 20ko 13/1994 Foru Legea aldatzekoa

ZIOEN AZALPENA

Hondakin berezien kudeaketari buruzko irailaren 20ko 13/1994 Foru Legea aldatzen duen otsailaren 13ko 1/2001 Foru Legeak –artikulu bakarra zuen– idatz-zati bat gehitu zuen “Hondakin berezien tratamendurako metodo erabilgarriak - Deuseztatzeko bideak” izenekoa eranskinaren barruan. Horren bidez, eta salbuespen gisa, hiru kasutan onartzen zen errausketa, krisi egoerak justifikaturik betiere. Kontuan izan behar da behi-aziendaren entzefalopatia espongiformearen lehen kasuak agertu zirela eta Nafarroan sortutako material arriskutsuak deuseztatzeko zailtasunak zeudela hasieran, Animalien entzefalopatia

espongiformeak begiratu eta kontrolatzeko programa integral koordinatuaren ondoriozko neurri bereziak zirela-eta.

Hala ere, zuzenean erraustea, ingurumenari begira, ez da metodo egokitzat hartzen hondakin solidoak deuseztatzeko; bereziki, isuri daitezkeen gaiak oso kutsagarriak izan daitezkeelako eta erraustu beharreko erregaiek ez dutelako balorizazio energetikorik. Hain zuzen ere, Hondakin berezien kudeaketari buruzko irailaren 20ko 13/1994 Foru Legeak, behi-aziendaren entzefalopatia espongiformea agertu arte, errausketa debekatuta zeukan Nafarroako Foru Komunitatean hondakinak deuseztatzeko metodo gisa. Organoklorodunak (dioxinak eta furanoak) eta metal astunak kopuru ez oso handitan isurita ere, kontuan izan behar da biometaketa prozesuak gertatzen direla gero, eta gizakiarenganaino heltzen elikakatearen bidez. Gai kutsatzaile horiek nekez iraitzen direnez organismoan pilatzen joaten dira eta zenbait patologia sorraraz ditzakete, horietako batzuk ongi aztertu gabeak.

Horrez denaz bezainbatean, Hondakin berezien kudeaketari buruzko irailaren 20ko 13/1994 Foru Legeak helburu nagusien artean ezartzen du Nafarroako hondakin berezien deuseztatzea egoki egiteko beharra, osasuna eta ingurumenari begira. Horrenbestez, otsailaren 13ko 1/2001 Foru Legeak onartutako errausteak ongi gauzatzeko, muga batzuk ezarri beharko dira lekuei dagokienez, errausketa horiek ukitutako herrietako biztanleentzako eta ingurumenarentzako arriskuei aurrea hartzearen eta segurtasunaren printzipioei jarraikiz.

Horretarako, Jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei buruzko azaroaren 30eko 2414/1961 Errege Dekretuak 4. artikuluan xedatzen duenez, jarduera horien kokaguneei buruzko arauak udaleko ordenantzetan ezarriko dira, edota udalaren urbanizazio planetan, eta, halako araurik ezean, zerbitzu teknikoei buruzko probintzia batzordeak ezarriko du leku egokia zenbait alderdi kontuan hartuta: kasuko jardueraren izaera berezia, biztanleengandik gertu behar al duen, txosten teknikoak eta neurri zuzentzaileak. Edonola ere, osasungaitz eta kaltegarritzat jotzen diren instalazioak ezartzeko arau orokorra da gertuen dagoen hirigunetik 2.000 metrora egotea gutxienez ere.

Hondakinak errausteak duen izaera bereziak, eta arriskutsua eta osasungaitza izateagatik ingu-

ruko herriek instalazioaren aurka egoten direnez oso, neurri bereziak hartu behar dira, gizartean borrokarik sor ez dadin, biztanleen osasunak arriskurik ez dezan izan eta ingurumenak ahalik eta babesik handiena izan dezan.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeteari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 57. c) artikulua Nafarroako Foru Komunitateari ingurumen arloko gaiak legez garatu eta betearaztea esleitzen dio eta 58. h) artikulua Estatuko legeria betearaztea industria isurkin kutsatzaileen arloan; halaber, Nafarroako Foru Komunitateak zuhurtasunezko neurri bereziak har ditzake Estatuko ordenamenduak ezarritakoaz gaindi, azaroaren 30eko 2414/1961 Errege Dekretuaren garapen gisa eta irailaren 20ko 13/1994 Foru Legearen garapen gisa. Horrenbestez, nahitaezkoa da otsailaren 13ko 1/2001 Foru

Legea aldatzea foru lege horretan ezarritako salbuespenak zehaztearren, eta hondakin solidoen errausketa-labeen eta hirigune nahiz natur guneen arteko gutxieneko tartea ezartzea.

Artikulu bakarra. Hondakin berezien kudeaketari buruzko irailaren 20ko 13/1994 Foru Legea aldatzen duen otsailaren 13ko 1/2001 Foru Legearen artikulua bakarraren amaieran beste artikulua hau gehituko da:

2. artikulua. Hondakin horiek errausteko instalazioek, gutxienez ere, hiriguneetatik 4.000 metro-ra egon beharko dute, eta babestutako edozein natur guneetatik 5.000 metrora.

Azken xedapena

Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, etorkinentzako hezkuntza politikari buruzkoa

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko jabeldura aurkeztu zuen: "Jabeldura, etorkinentzako hezkuntza politikari buruzkoa".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urriaren 1ean egindako bilkuran, aipatu jabelduraren biderapena onestea erabaki zuen. Biltzarreko Erregelamenduko 180. artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko urriaren 3an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

JABELDURAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán, Biltzarreko Erregelamenduko 179. artikulua eta hurrengo babesean, ondoko jabeldura aurkeztu du Osoko Bilkuraren aurrean tramita dadin. Horren bidez, Nafarroako Gobernuari jabeltzen gatzazkio jakiteko Hezkuntza Departamentuak etorkinentzako zer hezkuntza politika aplikatu duen 2001-2002 ikasturtearen hasieran, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan etorkinen seme-alaba asko baitago.

Balizko konponbide neurriak eragina ikasturte honetan izatea nahi denez, Erregelamenduko 181.1 artikulua aurreikusten duen presazko bidea erabiliz tramita dadila jabeldura eskatzen da.

Eskaria egiteko justifikazioa

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak adierazi nahi du bereziki kezkatuta dagoela Hezkuntza eta Kultura Departamentua etorkinen seme-alaba asko izateak hezkuntza sare publikoan sortu dituen beharrei aurre egiteko aplikatzen ari den politikarekin, eta ikastetxe publiko askotan giza baliabide nahikorik ez dagoelako ikasle horien beharrei aurre egiteko.

Horregatik, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Nafarroako Gobernuarentzako jabeldura hau proposatzen du etorkinei laguntza emateko aplikatzen ari den hezkuntza politikari buruz.

Nafarroako Gobernuari jabeltzen gatzazkio jakiteko Hezkuntza Departamentuak etorkinentzako zer hezkuntza politika aplikatu duen, eta, zehazkiago, xehetasun handiagoz ezagutzeko Hezkuntza Zuzendaritza Nagusiak irakasle eta baliabide materialen beharrei aurre egiteko emantiko konponbideak; izan ere, ikasturte honetan, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan etorkinen seme-alaba asko dago.

Halaber, jakin nahi dugu zenbat laguntzako irakasle jarri diren behar horiei aurre egiteko, zer giza baliabide eta baliabide material dituzten ikastetxeek, eta ikastetxeek gai honetan zituzten beharrek egoki beteta daudela uste al duen Hezkuntza Departamentuak.

Iruñean, 2001eko irailaren 27an

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da abelbideen sarea suspertzeko plan bati ekin diezaion

FORU PARLAMENTARI JOSÉ M^a AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA JAUNAK AURKEZTUA

Foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da abelbideen sarea suspertzeko plan bati ekin diezaion".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urriaren 1ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001eko urriaren 3an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José Mari Aierdi Fernández de Barrena, Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua xedatutakoaren babesean, hurrengo mozioa aurkeztu du ondoko Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

40.000 ardi inguru heldu ziren irailean Bardeara larre bila, beste urte batzuetan bezala.

2000 urtean, 75 artaldek egin dituzte trantsumantziako mugimenduak: 76.000 ardik, ardi guztien % 11k.

Lan neketsua da: abeltzaintzaren berezko gogortasunari gehitu behar zaio, gainera, gero eta nekezago bizirik irauten duen lurlantze-sistemaren izaera berezia.

Gure garaiotan kontraesana dirudi horrelako lan batek geroz eta zailtasun handiagoak izatea irauteko: lurrari atxikitako lan mota bat da, inguru errespetatzen duena, Europar Batasuneko Nekazaritzako Politikaren (PAC) aldaketak ere hori bilatzen zuela esan izan da, hots, abeltzaina gure ekosistemaren ingurumen-zaindaria izan dadila.

Tranhumantzia berez da gogorra, baina, gainera, abelbideen egoera makurrak are zailagoa egiten du. Nafarroako abelbideen inbentario orokor bakarra 1924koa da; haren arabera, sareak 2.139 kilometro egiten ditu eta 5.613 Ha hartzen.

Nafarroan, abelbideak horrela daude sailkatuta: 9 ardibide, guztira 777 km egiten baitute; 16 zeharbide, guztira 273 km egiten baitute; 52 pasabide, guztira 702 km egiten baitute, eta 29 adar, guztira 170 km egiten baitute.

Denbora asko pasa da urte hartatik eta ez da bide horien egoera gaurkotu; horrela ez da ezagutzen nafar guztion ondasun horren diagnostiko erreala.

Abelbideei buruzko Foru Legea 1997an onetsi bazen ere, Nafarroa ez da gauza izan legea gartu eta erregelamendurik egiteko, nafarrek egun dituzten beharren arabera erregelamendu bat, lurraldearen erabilera berriak kontuan hartu beharko lituzkeena eta errespetuz jokatu beharko lukeena milaka urtetan egin eta bizirik irauten duen jarduera batekin, nahiz eta jende gehienak ezagutu ez.

Sare horri egiten zaizkion erasoak esparru publikotik nahiz pribatutik heltzen zaizkio, sarritan ezjakitasunaren ondorioz.

Beraz, trantsumantzia egoki egiteko modua bermatu behar da, eta bermatu beharreko lehengo gauza da artzainen eta horien artaldean segurtasuna.

Ezin dugu ahanzi ezta ere bide horiek interes kultural eta etnografikoa duten ondarea direla.

Juridikoki, jabari publikoko ondasunak dira; multzo zabala eta garrantzitsua osatzen dute eta aukera asko eskaintzen, baina etengabe ari dira hondatzen.

Abeltzaintza sistema propio, estentsibo eta kalitatezkoaren oinarri dira.

Turismo- eta josteta-baliabidea da, eta horrek garapen ekonomikorako aukerak ematen ditu.

Eta, halaber, hiriko gizartearen eta landa-gizartearen arteko topagune dira.

Horregatik guztiagatik,

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak Nafarroako Gobernua premiatzen du jabetu dadin argi hondatzen ari dela gutxinaka Nafarroako abelbideen sarea, eta, beraz, sei hilabeteko epean bide horiek leheneratzeko plan bat abian jar dezan, zeinak hurrengo lan-ildoak izan beharko baititu gutxienez:

– Lehena.

Abelbideen azterketa eta horien inbentarioa egitea, bai eta egungo egoerari buruzko diagnostikoa ere.

– Bigarrena.

Legea erregelamendu bidez garatzeko proposamena prestatzea; ondokoak egin beharko ditu:

– Abelbideei zuzendutako jarduketa publikoak eta pribatuen koordinazioa bermatuko duten prozedurak –arinak eta parte hartzeoak– erregulatzeari.

– Nafarroako Gobernuaren departamentuek gai horretan dituzten eskumenak argitu eta egoki banatzea.

– Sarearen kudeatze orokorra bultzatu.

– Hirugarrena.

Epekako plan bat zehaztu, eta epe motz, ertain eta luzeko helburuak ezarri.

– Laugarrena.

Babes Zibilaren eta Foruzaingoaren laguntzarekin, bidean doazen artzain trantsumanteentzako laguntza antolatu kasuko urte sasoiari (maiatzean

eta irailean), bereziki arrisku edo arazo guneetan (errepideak, zubiak, hiri guneak, etab.)

– Bosgarrena.

Abeltzaintza trantsumantearen iraupen aukerak aztertu.

– Seigarrena.

Irizpide tekniko batzuk prestatzea, ingurunean jarduteko proiektuetan txertatu ahal izateko.

– Zazpigarrena.

Herritarrei oro har eta, bereziki, toki entitateei zuzendutako dibulgazio eta sentsibilizazio kanpaina bat egitea abelbideei buruz: horien eginkizunak, ezaugarri juridikoak, ematen dituen aukerak, etab.

– Zortzigarrena.

Gaiarekin zerikusia duten eragileei parte hartzen utzi aipatutako plana prestatzean, abeltzain trantsumantei bereziki, eta abelbideen adiskideen elkarteari.

Iruñean, 2001eko irailaren 26an

Foru parlamentaria: José Mari Aierdi Fernández de Barrena

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da Unibertsitatei buruzko Lege proiektua erretira dezan

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: “Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da Unibertsitatei buruzko Lege proiektua erretira dezan”.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urriaren 1ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001eko urriaren 3an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztánek, Biltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaida dadin. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da Unibertsitatei buruzko Lege proiektua Gorte Nagusietako eztabaidatik erretiratu eta beste proiektu bat aurkez dezan, non erronka berrietara eta gizartearen eskakizun berrietara egokitzeko Espainiako unibertsitateek behar dituzten aldaketak jasoko baitira.

ZIOEN AZALPENA

PPren Gobernuak unibertsitatei buruzko lege proiektua prestatu du, baina ez du ados jartzea lortu ez unibertsitateekin ez horien ordezkartza organo legitimoekin ez autonomia erkidegoekin

eta ezta Espainiako autonomia erkidegoetako alderdi politikoekin ere. Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak uste du nahitaezkoa dela unibertsitatea berri eta goi mailako hezkuntzaren esparru europarrean sartzea, eta, gure ustez, aurreko hori atzerapausoa izanen da. Bestalde, bereziki kezkarria da aukera hau ez aprobetxatu izana unibertsitatearen finantziarioaren arazoa konpontzeari ekiteko; gai horrek nabarmen aldentzen gaitu Europako egoeratik, eta hori da gure nahitaezko erreferentzia.

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearen ustez, gaizki eginikoak konpondu eta beste lege proiektu bat prestatu behar da; horretan, besteak beste, hurrengoak proposatu beharko dira: errektorearentzat eta haren gobernu taldearentzat autonomia akademiko handiagoa eta kudeaketa autonomia handiagoa; unibertsitateko irakasleak hautatzeko beste sistema bat; unibertsitatez kanpoko goi mailako zentrorik ez izatea; gizarteari kontuak ematea hobeki bermatuta egon dadila; eta unibertsitatearen finantza-

keta areagotu eta ikasleen beka handiagoak izan daitezela.

Horregatik proposatzen dugu ondoko erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak erabaki du Espainiako Gobernuak premiatzea Unibertsitateei buruzko Lege proiektua Gorte Nagusietako eztabaidatik erretiratu eta beste proiektu bat aurkez dezan, non erronka berrietara eta gizartearen eskakizun berrietara egokitzeko Espainiako unibertsitateek behar dituzten aldaketak jasoko baitira, eta goi mailako hezkuntzaren esparru europarrean sartuko baita unibertsitatea .

Proiektu berri horrek unibertsitateen, horien ordezkari-organoen, autonomia erkidegoen eta Espainiako autonomia erkidegoetako alderdi politikoen onarpen zabala jaso beharko luke.

Iruñean, 2001eko irailaren 27an

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da jarduketa plan bat egin dezan ikastetxe publikoetako instalazioak irekita egoteko denbora luzatzeko

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da jarduketa plan bat egin dezan ikastetxe publikoetako instalazioak irekita egoteko denbora luzatzeko".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urriaren 1ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Hezkuntza eta Kultura Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001eko urriaren 3an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztánek, Biltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Hezkuntza eta Kultura Batzordean eztabaida dadin. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da jarduketa plan bat egin dezan ikastetxe publikoetako instalazioak ordu gehiago irekita egoteko eta asteburuetan eta oporretan ere irekitzeko; ikasleek, horrela, kultura- eta kirol-jarduerak zein bestelako jarduerak osagarriak ere egin ahal izanen dituzte.

Zioen azalpena

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak uste du ikastetxe publikoak gizarte-eginkizun gehiago izan ditzaketela, eta eguneko ordu gehiagotan eta urteko egun gehiagotan erabil daitezkeela; helburua da nahi duten ikasleek kultura- eta kirol-jarduerak zein bestelako jarduerak osagarriak ere egin ahal izan ditzatela.

Jarduera horiek udalen mendeko eta horretarako egoki prestatutako monitoreek zuzenduko lituzke; beraz, beharrezkoa litzateke Nafarroako hurrengo aurrekontuetan beharrezko diru kopuruak aurreikustea, nahi duten udalekin hitzarmenak sinatu eta haien mende dituzten ikastetxeen erabilera zabal dezaten: urtean hamaika hilabetera eta egunean hamabi ordura, gutxienez. Hala ere, beste aukera bat ere hartu beharko litzateke kontuan; hau, hain zuzen: zenbait ikastetxek lehenago ireki ditzatela ateak eta, horrela, lanean goizean goiz hasi eta haurrak norekin utzi ez duten gurasoentzako errazagoa izan dadila horiek eskolara eramatea.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak erabaki du Nafarroako Gobernua premiatzen da jarduketa plan bat egin dezan ikastetxe publikoetako instalazioak ordu gehiago irekita egoteko eta asteburuetan eta oporretan ere irekitzeko; ikasleek, horrela, kultura-eta kirol-jarduerak zein bestelako jarduerak osagarriak ere egin ahal izanen dituzte.

Iruñean, 2001eko irailaren 26an

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere gain har dezan osasun laguntza izateko eskubidea ezagutzeko eskumena

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere gain har dezan osasun laguntza izateko eskubidea ezagutzeko eskumena".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urriaren 1ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Foru Araubide Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001eko urriaren 3an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztánek honako mozio hau aurkeztu diot Nafarroako Parlamentuko Mahaiari, Foru Araubide Batzordeak eztabaida eta bozka dezan. Horren bitartez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Estatuarekin negoziatzeko tramiteei ekin diezaien, Foru Komunitateak, transferentzia bidez, bere gain har dezan osasun laguntza izateko eskubidea ezagutzeko eskumena.

Osasun arloko eskumenak 1991ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez eskuratu zituen Nafarroak, transferentzia bidez. Horrek esan nahi du Foru Komunitateak bere gain hartzen duela horren ondoriozko kostua. Dena den, transferentzia horrek ez zuen ekarri osasun laguntza izateko eskubidea ezagutzeko eskumena Foru Komunitateak bereganatzea. Hain zuzen ere, eskumen horrek Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren eskuetan dirau.

Nahiz eta, babes eta laguntzarako sistema publiko nazionalaren jatorrian eta finantza-iturburuetan izandako nahasmena dela-eta, egoera hori ulergarria izan daitekeen, lekuz kanpokoa izatera pasa da diru-sarrerak, kotizazioak eta zergak zertan erabiltzekoak diren eta kotizaziopeko nahiz kotizazio gabeko prestazioen eta osasun laguntzaren nondik norakoak argitu ondoren.

Are gehiago, Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legea onetsi ondoren, zeinak ezartzen baitu osasun publikoaren finantzaketa Estatuko eta autonomia erkidegoetako aurrekontu orokorren bitartezkoa izanen dela, eta ez Gizarte Segurantzaren aurrekontuen bitartezkoa. Horrela, bada, osasun laguntza izateko eskubidea herritar izateak ematen du, eta ez babes-sistema publikoaren kotizatzaile izateak.

Hain zuzen ere, Nafarroako Gobernua da oro har herritarrei osasun laguntza ematearen betebeharra automatikoki bereganatzen duena, bai herritar horiek kotizatzaile berriak direnean, bai horien

onuradunak, bizilekuz aldatuak, etorkinak, atzerritarrak eta abar direnean ere.

Arrazoizkoa dirudi osasun laguntza emateko betebeharrak bere gain duenak eskumena ere izatea horretarako eskubidea ezagutzeko. Eskubide ezagutze horrek, nahitaez, Estatuko eta Foru Komunitateko legediaren arabera behar du izan. Hori ere logikoa da, gure eskumen guztiak eskuratzeko eta Nafarroaren autogobernua sendotzeko erreibindikazio etengabekoaren ikuspegi-tik.

Proposatzen den erabaki proposamenaren testua:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nazioko Gobernuari eska diezaion Nafarroako Foru Komunitateak transferentzia bidez eskuratu dezala osasun laguntza izateko eskubidea ezagutzeko eskumena, eta hori gauzatu dadin Nazioko Gobernuko administrazio zerbitzuekin lankidetzak teknikoan arituz.

Iruñean, 2001eko irailaren 27an

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erditze multipleak izan dituzten familientzako laguntza ekonomikoak alda ditzan

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erditze multipleak izan dituzten familientzako laguntza ekonomikoak alda ditzan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urriaren 1ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001eko urriaren 3an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztánek, Biltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, erditze multipleak izan dituzten familientzako laguntza ekonomikoak buruzko mozio hau aurkeztu du.

Zioen azalpena

Erditze multipleak izan dituzten familiek behin baino gehiagotan eskatu dituzte familia mantentzeko laguntzak; izan ere, jaiotzek familia horietan duten eragina handiagoa da, erditze multipleak,

bat-batean, familia mantentzeko behar diren baliabideen beharrak biderkatu egiten baititu.

Aurreko apirilaren 5ean, lege proposamen bat eztabaidatu zen biltzarrean; talde honek aurka egin zuen, gai hori foru dekretu bidez arautu behar zela uste baitzuen, nahiz eta bat etorri administrazioak familiei egun ematen dizkien laguntzak handitu egin behar direla.

Osoko Bilkura horretan, Gizarte Ongizate kontseilariak hitz eman zuen estatuan punta-puntakoak izanen ziren laguntzak ezarriko zituela. Laguntza horiek ez dira heldu oraindik, eta, beste autonomia erkidego batzuetan, Euskal Autonomia Erkidegoan edo Aragoi adibidez, familia horiei ematen zaizkien prestazioak nabarmen handiagok dira. Nafarroak prestazio horiek hobetzeko nahikoa ahalmen baduela uste dugunez, mozio hau aurkeztu dugu, zeinaren bitartez adierazi nahi baita zer aldaketa egin behar diren laguntza horiek arautzen dituen ekainaren 27ko 241/2000 Foru Dekretuan.

Erabaki proposamena

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Erditze berean bi haur edo gehiago izan dituzten familientzako dirulaguntzak arautzen dituen ekainaren 27ko Foru Dekretuan honako aldaketak egin ditzan.

a) Hileroko laguntza ekonomikoak.

Familiak zer errenta duen kide bakoitzeko, horren arabera ezarri beharko dira laguntzak, eta seme-alabako ezar daitezkeen beste laguntza

batzuekin bideragarriak izateko moduan. Honi jarraituko zaio:

a. Erditze bikoitzeko familiak: 15.000 pezeta hileko eta seme-alabako, lehenbiziko hiru urtetan. 10.000 pezeta hileko eta seme-alabako, lau eta hamabi urte bitartean.

b. Erditze hirukoitzeko familiak: 25.000 pezeta hileko eta seme-alabako, lehenbiziko hiru urtetan. 15.000 pezeta hileko eta seme-alabako, lau eta hamabi urte bitartean.

c. Erditze laukoitzeko familiak: 40.000 pezeta hileko eta seme-alabako, lehenbiziko hiru urtetan. 25.000 pezeta hileko eta seme-alabako, lau eta hamabi urte bitartean.

d. Bost haur edo gehiago batera jaioz gero, hileko eta seme-alabako 10.000 pezeta gehiago jasoko dute, eta, haurrak jaio ahala, diru kopuru horrek gora egingen du. Seme-alabek hamabi urte bete artean emanen dira laguntzak.

b) Hezkuntzaren arloko laguntzak.

– Haur hezkuntza, familiak kide bakoitzeko duen errentaren arabera, doakoa izanen da erditze multipleak izan dituzten familientzat.

– Laguntza ekonomiko eta beka bereziak ezarriko dira hezkuntza bide guztian, eskolako materiala erosteko, jangeletarako eta garraiorako.

c) Osasun arloko laguntzak.

– Laguntzak ezarriko dira zenbait tratamenduk eragiten dituen gastuei aurre egiteko, hala nola ortodontziakoak, entzumenekoak, oftalmologikoak, ortopedikoak eta bestelakoak.

d) Beste laguntza batzuk.

– Etxebizitzak eta ibilgailuak erosteko laguntzak ezarriko dira, familiak bost kide baino gehiago izanez gero.

Iruñean, 2001eko irailaren 27an

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

F saila:
GALDERAK

MER hondakinak Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa batetara eramateari buruzko galdera*FORU PARLAMENTARI JOSÉ M^a AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urriaren 1ean egindako bilkuran, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak MER hondakinak Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa batetara eramateari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko urriaren 3an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José Mari Aierdi Fernández de Barrena, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta hurrengoek xedatutakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuko Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariari idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Gobernuak eta Iruñerriko Mankomunitateak orain gutxi hitzartu zutenez, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa batek tratatuko zituen gure erkidegoan sortutako MER hondakinak.

Talde honek jakin duenez, hondakin horien garraioa hasi da, baina eten egin da; izan ere, badirudi hondakin horiek ez zirela egoera egokian bidaltzen ari. Bitxia da, gutxienez, hori gertatzea, Nafarroan errauste-labe bat jartzeko proiektua tramitatzen ari direnean.

Horregatik guztiagatik, hurrengo zalantzak argi diezazkiguzuen nahi dugu:

Lehena. Egia al da oraindik ere gure erkidegoan aparkatuta jarraitzen dutela MER hondakinez beteriko kamioiak?

Bigarrena. Zenbat dira eta zer industrialdetan daude?

Hirugarrena. Zer kostu du kamioi bakoitzak eguneko?

Laugarrena. Egia al da hondakin horiek eho behar zituen Ortuellako Gamersa enpresara bidalitako lehenbiziko kamioiak zeramatzan hondakinetan torlojuak eta aluminio puskek zihoazela?

Bosgarrena. Egia al da bigarren kamioia Nafarroara bidali zutela bueltan aurreko arrazoia zela medio?

Iruñean, 2001eko irailaren 20an

Foru parlamentaria: José Mari Aierdi Fernández de Barrena

Ondare historikoaren inbentarioan ageri diren etxebizitzak zaharberritze-ari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSÉ M^a AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urriaren 1ean egindako bilkuran, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak ondare historikoaren inbentarioan ageri diren etxebizitzak zaharberritzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko urriaren 3an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José Mari Aierdi Fernández de Barrena, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta hurrengoek xedatutakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuko Hezkun-

tza eta Kultura kontseilariari idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Gobernuak laguntza lerro bat ezarri zuen aurrekontuetan Vianako Printzea Erakundeak egina duen ondare historikoaren inbentarioan ageri diren etxebizitzak zaharberritzeari aurre egiteko.

Galdera

Lehena. Ondare historikoaren inbentarioan ageri diren etxebizitzak estalki eta aurrealdeak zaharberritzeko deialdia egin eta zenbat eskari aurkezten dira urtero eta zenbat diru egiten dute guztira?

Bigarrena. Aurrekontuan dirurik ez egoteagatik zenbat laguntza gelditzen dira eman gabe eta zenbat diru egiten dute?

Iruñean, 2001eko irailaren 26an

Foru parlamentaria: José Mari Aierdi Fernández de Barrena

Mahats bilketan aritzen diren langileen lojamenduari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSÉ M^a AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urriaren 1ean egindako bilkuran, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak mahats bilketan aritzen diren langileen lojamenduari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko urriaren 3an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José Mari Aierdi Fernández de Barrena, Nafarroako Parla-

mentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta hurrengoek xedatutakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuko Nekazari-tza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariari idatziz erantzun diezaion:

Iaz, zenbait udalek lekuak prestatu zituzten sasoikako langileei ostatu emateko. Besteak beste, Mendabiako Udalak kanpin bat jarri zuen herrira mahatsa biltzera etorritako 600 pertsoneri ostatu emateko, eta, horretarako, Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso zuen.

Galdera.

Lehena. Zer inbertsio egin dira herri horretan aurrean, 2001 urtean, mahatsa biltzera etorriko diren langileei moduzko ostatua ziurtatzeko?

Bigarrena. Urtean zehar zer egin du eta zenbat diru jarri du departamentuak langile multzo handi horrek ostatatze-azpiegiturak izan ditzan?

Iruñean, 2001eko irailaren 26an

Foru parlamentaria: José Mari Aierdi Fernández de Barrena

Aurten gertatutako suteei buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSÉ M^a AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urriaren 1ean egindako bilkuran, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak aurten gertatutako suteei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko urriaren 3an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José Mari Aierdi Fernández de Barrena, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta hurrengoek xedatutakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuo Inguru-

men, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariari idatziz erantzun diezaion:

Aurten Nafarroan kiskalitako azalera, iaz garaiotan kiskalitakoarekin alderatuta, askoz ere handiagoa da.

Aurten gure erkidegoan izaniko suteei buruzko informazio zehatza nahi dugu, bai eta sute bakoitzaren arrazoia ere.

Galdera.

– Zein izan da sute horietako bakoitzaren jatorria?

– Zer bitartekorekin egiten dio aurre Gobernuak Nafarroaren aberastasun galtze garrantzitsu eta etengabe horri?

Iruñean, 2001eko irailaren 26an

Foru parlamentaria: José Mari Aierdi Fernández de Barrena

Bardeako tiro poligonoan militarren ariketak direla-eta dauden bermeei buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSÉ M^a AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urriaren 1ean egindako bilkuran, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak Bardeako tiro poligonoan militarren ariketak direla-eta dauden bermeei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko urriaren 3an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José Mari Aierdi Fernández de Barrenak, Nafarroako Parla-

mentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta hurrengoek xedatutakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuak Lehendakari, Justizia eta Barne kontseilariari idatziz erantzun diezaion:

Lehena. Nola bermatzen du Nafarroako Gobernuak Bardeako tiro poligonoan orain egiten ari diren ariketa militarretan, nahiz eta nafar gehienak aurka egon, ez direla material eta munizio kutsatzaileak erabiltzen ari?

Bigarrena. Agintari politikoeak, gurean Nafarroako Gobernuak, agintari militarren aurrean zer kontrol sistema erabiltzen dituzte bermatzeko ez Estatuko pilotoez ezta NATOkoek ere ez dutela horrelako armarik erabiliko?

Iruñean, 2001eko irailaren 26an

Foru parlamentaria: José Mari Aierdi Fernández de Barrena

Jarduera arriskutsuan aritzen diren enpresei buruzko galdera

BATASUNA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urriaren 1ean egindako bilkuran, Batasuna Parlamentuko Taldeak jarduera arriskutsuan aritzen diren enpresei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko urriaren 3an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Batasuna Parlamentuko Taldeak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, ondoko galderak aurkeztu ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezazkion.

Aurreko astean, Frantziako Tolosan, AZF enpresa petrokimikoak eztanda egin eta hildako

eta zauritu ugari eragin zituen. Horrek agerian utzi du ezen, zenbaitetan, produktu kimikoekin lan egiten duten lantegietako prebentzio sistemak akatsak izaten dituztela eta segurtasunak hutsuneak izaten dituela; are gehiago jendea bizi den gunetatik gertu badaude lantegi horiek.

Hori horrela, komeni da jakitea Gobernuak Nafarroan produktu kimikoak erabiltzen dituzten enpresak kontrolatzen ote dituen eta ba al dakien enpresa horiek prebentzio planik ote duten, eta behar diren segurtasun neurriak betetzen ote dituzten hala istripuak ekiditeko, nola, istripuak gertatuz gero, biztanle guztiak ez kaltetzeko.

Horregatik guztiagatik, gure talde parlamentarioak ondoak jakin nahi ditu:

1.- Produktu kimikoak erabili, tratatu edo produzitzeagatik jarduera arriskutsutzat jotako zenbat enpresa dago Nafarroan?

2.- Ba al daki enpresa guztiek ba ote dituzten istripuak izaten direnerako larrialdi planak?

3.- Zer segurtasun neurri aurreikusten dira plan horietan?

4.- Horietako zenbat enpresa dago, Inquinasaren moduan, biztanle dentsitate handiko guneen ondoan?

5.- Inquinasaren kasuan, biztanle guneeetatik gertu egotea bat al dator segurtasun perimetro gisa ezarritako neurriei buruz agindutakoarekin?

6.- Egiten al du Nafarroako Gobernuak larrialdi plan horien behaketarik?

7.- Ba al du Nafarroako Gobernuak jardute protokoloen bat istripurik izanez gero enpresa horietan aplikatzeko? Nolakoak dira?

Iruñean, 2001eko irailaren 27an

Eleduna: Joxe Fernando Barrena Arza

Nafarroako Gobernuak Iruñeko Erakustazokan izaniko parte hartzeari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI FÉLIX M^a TABERNA MONZÓN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urriaren 1ean egindako bilkuran, foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak Nafarroako Gobernuak Iruñeko Erakustazokan izaniko parte hartzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko urriaren 3an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari

Félix Taberna Monzónnek, Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, hurrengo galdera egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Orain gutxi erakustazoka izan da Iruñean, eta Nafarroako Gobernuaren parte hartzea handia izan da; horregatik, hau jakin nahi da:

– Zer parte hartze izan dute Nafarroako Gobernuak, horren erakunde autonomoek eta enpresa publikoek Iruñeko erakustazokan? Erakustoki kopurua eta erakunde arduraduna, metro koadroak eta kostu ekonomikoa guztira.

– Zergatik parte hartu dute erakustoki edo stand horietan?

Iruñean, 2001eko irailaren 28an

Foru parlamentaria: Félix Taberna Monzón

Komunikabideen kudeaketako enpresa bat Nafarroan kokatzeari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI FÉLIX M^a TABERNA MONZÓN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urriaren 1ean egindako bilkuran, foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak komunikabideen kudeaketako enpresa bat Nafarroan kokatzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko urriaren 3an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari

Félix Taberna Monzónnek, Parlamentuko Erregela-menduan xedatutakoaren babesean, hurrengo galdera egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Diario de Noticias egunkariaren arabera, Nafarroan ezartzekoa da komunikabideak ekoiztu eta kudeatzen dituen enpresa bat (telebista, egunkari eta bestelakoak).

Hau jakin nahi da:

Izan al du Nafarroako Gobernuko ordezkariaren batek kontakturik enpresa horrekin? Baiezkoan, zein izan da emaitza?

Iruñean, 2001eko irailaren 28an

Foru parlamentaria: Félix Taberna Monzón

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko dokumentalista eta liburutegiko laguntzaile lanpostu bat lekualdatze-lehiaketaren bitartez betetzekoa

Lekualdatze lehiaketa eman gabe geratu da

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urriaren 1ean egindako bilkuran, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko dokumentalista eta liburutegiko laguntzaile lanpostu bat lekualdatze-lehiaketaren bitartez betetzeko deialdirako eskabideak aurkezteko epea bukatuta eta eskabiderik aurkeztu ez denez (deialdia 2001eko maiatzaren 21eko 62. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen), horra ERABAKIA:

1.- Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko dokumentalista eta liburutegiko laguntzaile lanpostu bat lekualdatze-lehiaketaren bitartez betetzeko deialdia eman gabe uztea. Deialdi hori 2001eko maiatzaren 21eko 62. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2001eko urriaren 3an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

<p>HARPIDETZAREN PREZIOA</p> <p>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</p> <p>Urte bat..... 6.300 pta.</p> <p>Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 150 ».</p> <p>Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 185 ».</p>	<p>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</p> <p>NAFARROAKO PARLAMENTUA</p> <p>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</p> <p>Arrieta 12, 3</p> <p>31002 IRUÑA</p>
---	---